

## ARNO BABES BEREZIKO EREMUA

---

Artadi kantauriarra oso baso urria da Gipuzkoan, eta arroka ama azaleratzen den eguterako kareharrizko lurzoruko eta malda handiko tokietan baino ez da azaltzen. Orientazioa eta lurzoruaren iragazkortasun handia direla eta, artadia ingurune idorra da, eta bertako biztanleak egokitu egin behar dira, nahitaez.

Artadiaren gaur egungo itxura egur-ikatzka egiteko egurra ustiatzearen ondorioa da. Jarduera hori duela hamarkada gutxi arte mantendu izan da.

Artadian ugariak dira karraskilak, gartxuak, gurbitzak, arrosa basatiak, txilarrak eta erramuak, eta bai artadiaren barruan eta bai inguruetan, zurezko flora, basaranez, elorri zuriz, hurritzez edo zuhandorrez osatuta dago. Gainera, gorostia eta erratza ere nabarmendu behar dira.

Iparralderantz paisaia aldatzen da, malda handiak leundu egiten dira, eta Olatz bezalako bailarak agertzen dira. Bertan, landazabalak, larreak eta laboreak dira nagusi, pinudien eta haritzezko baso txikien ondoan.

Mendi horietan bizi dira uhandre marmolairea, igel arrunta, sugedorri kantauriarra, azkonarra, erbinudea eta basurdea eta, mendigunearen haitzuloetan, oso saguzar-kolonia garrantzitsuak. Gainera, harkaitzetan sai zuriak egiten du habia.



Olatzeko landazabala



Artea



Horma-sugandila